

“JON TECEDOR” BEKA

Lasarte-Oriako Udalak “Jon Tecedor” BEKA sortzea erabaki du, Halterofiliaren kirol-diziplinan etorkizun handikoak diren kirolari federatuei laguntzeko xedez, 2010-2011 bitartean, Goi-mailako Halterofiliako Campusean parte hartzeko BEKA batekin hornitua.

Duela bi urte pasatxo hil zen Jon Tecedor, 32 urte zituela, Donostian gertatutako moto-istripu batean nozitu zituen lesio larrien ondorioz.

Jon Tecedor gipuzkoar halterofilo ezagun bat zen, Lasarte-Oriako bizilaguna. Kirol-diziplina horren elitekoa zen, halako punturaino non Sydneyko joko olinpikoetan parte hartzera iritsi baitzen. Han, 105 kilotik gorakoen kategoriako finala jokatu zuen, eta zortzigarren postu bikain bat lortu zuen. Espainiar halterofiliako ordezkari bakarra izan zen zita olinpiko hartara joan zena.

Jon Tecedor, kirol-arloan, Lasarte-Oriako Indarra klubean hasi zen formatzen, Carmelo Zarzueloren aginduetara. Bere pisukoen kategorian lortu zituen arrakasta handienak, bai probintzia mailan, bai komunitate mailan eta bai estatu mailan ere. 2001ean, bera gailendu zen, Bruno Soto bizkaitarrarekin izan zuen lehia bizian, Euskadiko Sei Orduen barruan.

Horregatik guztiagatik, eta uste dugulako halterofilia kirol minoritario bat dela eta bultzatu egin behar dugula Euskal Herriko gizartean, batez ere euskal gazteen artean, Lasarte-Oriako Udalak BEKA hori sortzea erabaki du, denboran zehar irauteko asmoarekin.

BEKAren mamia izango da kirolari sari-irabazleak egonaldi bat egitea Goi-mailako Halterofiliako Campusean, arlo horretan egiten duen lana sustatzeko xedez eta, hartara, euskal kirolariek Jon gure bizilagunaren ildoari jarraitu ahal izatea lortzeko.

Horretarako, Lasarte-Oriako Udalak beharrezkotzat jotzen du aurrekontuetan gastu hori babestuko duen diru-kopuru bat izendatzea, 1200 eurekin hornitua 2010-2011 denboraldirako.

Diru-laguntza hori lortzeko, beharrezkotzat jotzen da oinarri argi eta zehatzak ezartzea, objektibotasunaren, konkurrentziaren eta publizitatearen printzipioak bermatuko dituztenak, ezaugarri horiek izan behar baititu diru-laguntzetarako edozein deialdik, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatzen den moduan. Gainera, diru-laguntza hori zertarako erabiltzen diren jakiteko eta kontrolatzeko bideak ezarri behar dira.

Hori horrela, Lasarte-Oriako Udalak hau erabaki du:

Halterofilian etorkizun handia duten kirolari federatuei 2010-2011 denboraldian laguntzak emateko deialdia

Lehena. Deialdiaren xedea. Halterofilian etorkizun handia duten eta Euskadin federatuak dauden kirolariei (profesionalak ez direnei) BEKA bat ematea, betiere beren kirolaribilbidean arrakasta garrantzitsurik izan badute 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era bitartean.

Oinarri hauek xedatzen dutenetarako, etorkizun handiko kirolaritzat joko dira, oraindik lehiaketa- maila gorenera iritsi ez arren, goraino iristeko itxaropen sendoa dutenak, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Lege ekainaren 11koak 70.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Beneficiarios/as

1. Diru-laguntza hau halterofilian etorkizun handia duten Euskadiko kirolari federatuek eskatu ahalko dute, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-federazioetako lizentzia badute eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duen klub batean diharduten kirolari federatuak izatea, 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era bitartean.
2. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:
 - a) Diru-laguntzen azaroaren 17ko 2003/17 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau-hausteengatik santzionatuak izan diren kirolariak.
 - b) Joan den denboraldian Euskadiko klub batean jardunean parte hartu arren, oraingo denboraldian hala egiten ez duten kirolariak.
 - c) Lehenago ere BEKA hau jaso duten kirolariak.
 - d) Dopatzeagatik santzionatuak izan diren kirolariak.

Hirugarrena. Diru-laguntza mota. Euskadin halterofiliaren modalitatean etorkizun handia duten kirolariek diru-laguntza honen eskabidea egiten dutenean, lor dezaketen laguntza BEKA bat izango da, MILA ETA BERREHUN EUROKOA (1.200 euro), Lasarte-Oriako Udalak izendatutako Goi-mailako Halterofiliako Campus batean parte hartzeko.

Laugarrena. Laguntza emateko erregimena. Diru-laguntza hau nori eman, lehiaketa bidez ebatziko da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea.

1. Eskabideak aurkezteko epea, bai halaber oinarri hauetako seigarren puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztekoa, deialdi hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengoan hasiko da eta 2011ko ekainaren 30ean bukatuko da.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, norbera etorrita edo posta bidez helbide honetara bidalita:

Lasarte-Oriako Udala
Erregistro Orokorra
Kale Nagusia 22
20160 • Lasarte-Oria

2. Nolanahi ere, espresuki zehaztu behar da eskatzailearen bizilekua, notifikazioak hara egiteko.
3. Diru-laguntza hau eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa espresuki eta formalki onartzen dela esan nahi du.

Baldin eta eskabideak deialdian jasotako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari eskatuko zaio akatsak zuzen ditzala edo aginduzko agiriak aurkez ditzala hamar eguneko epean. Hala egin ezean, eskabidea artxibatu egingo da, eta interesatuaren eskaera ezetsitzat jo beharko da.

Seigarrena. Dokumentazioa.

1. Eskaera egiten duen kirolariak Lasarte-Oriako Udalaren eskaera-inprimaki normalizatua bete beharko du, eta hari erantsiko dizkio ondoko dokumentu hauek, kirolari laguntza-eskatzaileari buruzkoak:
 - a) Halterofiliako lurralde-federazioaren ziurtagiria, zeinak egiaztatuko baitu kirolariaren federazio-lizentzia indarrean dagoela 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era bitartean, bai halaber egoitza lurralde historikoan daukan eta dagokion federaziokoa den klub batean adskribitua dagoela.
 - b) Pertsona eskatzailearen datuak:
 - DNIaren fotokopia irakurtzeko modukoa.
 - Bankuko kontuaren zenbakia (hogei digitu).
 - Egungo bizilekuaren helbidea eta telefonoa.
 - Izen-abizenak eta sinadura.
 - c) Dagokion udalak egindako ziurtagiria, zeinak egiaztatuko baitu etenik gabe erroldatua egon dela lurralde historikoetako edozein udalerritan, deialdi honetan eskabideak aurkezteko ezartzen den epea amaitu baino lehenagoko 2 urteetan.
 - d) Halterofiliako Federazioak kirolari eskatzaileari buruz egindako ziurtagiria, zeinetan adieraziko baita txapelketaren batean parte hartu duela 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era bitartean.

e) Kirolari eskatzaileari buruz dagokion Halterofiliako Federazioak egindako ziurtagiria, zeinetan adieraziko baita kirolaria nola sailkatua geratu den dagokion lehiaketan, bai halaber aldez aurretik zenbat fasetan parte hartu behar izan duen kirolariak lehiaketa horretara iritsi ahal izateko.

f) Eskabidea arrazoitzeke egokitzen jotzen diren agiriak eta txostenak.

2. Pertsona bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal du.
3. Emandako datuetatik, 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era arteko bitarteari dagozkionak bakarrik baloratuko dira. Datu horiek ez dira baliozkoak izango hurrengo deialdietarako.
4. Behar bezala egiaztatzen ez diren datuak ez dira baloratuko.
5. Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, Udaleko Kirol-Zerbitzuak eskabide formalizatuak ebatzeko egoki deritzen agiri osagarriak eskatu ahalko dizkie eskatzaileei. Baldin eta eskatzaileak eskatu zaizkion agiriak adierazitako epean aurkeztzen ez baditu, eskabidea ezetsitzat joko zaio, eta eskabidea artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

Zazpigarrena: BEKA emateko irizpideak. Laguntza nori adjudikatu erabakitzeke, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira, eta eskatzaileari elkarriketa egin ahalgo zaio eta/edo egoki jotzen diren argibideak eskatu. Balorazio hori egiteko, honako puntuazio-baremo hau hartuko da kontuan:

- a) 2010eko abuztuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era arteko denboraldiari dagozkion lehiaketetan izandako kirol-arrakastengatik edo parte-hartzeengatik.

Lehiaketa, emaitzak, puntuak:

- Mundu-mailako dominaduna (lehenengo sailkatua) 100 puntu
- Mundu-mailako dominaduna (bigarren sailkatua) 95 puntu
- Mundu-mailako dominaduna (hirugarren sailkatua) 93 puntu
- Mundu-mailako parte-hartzailea 90 puntu
- Europa-mailako dominaduna (lehenengo sailkatua) 85 puntu
- Europa-mailako dominaduna (bigarren sailkatua) 80 puntu
- Europa-mailako dominaduna (hirugarren sailkatua) 78 puntu
- Europa-mailako parte-hartzailea 75 puntu
- Estatu-mailako dominaduna (lehenengo sailkatua) 70 puntu
- Estatu-mailako dominaduna (bigarren sailkatua) 65 puntu
- Estatu-mailako dominaduna (hirugarren sailkatua) 60 puntu
- Estatu-mailako parte-hartzailea 55 puntu
- Euskadi-mailako dominaduna (lehenengo sailkatua) 50 puntu
- Euskadi-mailako dominaduna (bigarren sailkatua) 45 puntu
- Euskadi-mailako dominaduna (hirugarren sailkatua) 40 puntu
- Euskadi-mailako parte-hartzailea 35 puntu

- Probintzia-mailako dominaduna (lehenengo sailkatua) 30 puntu
- Probintzia-mailako dominaduna (bigarren sailkatua) 25 puntu
- Probintzia-mailako dominaduna (hirugarren sailkatua) 20 puntu
- Probintzia-mailako parte-hartzailea 15 puntu

- b) Kirolariak parte hartu duen eta a) atalean sartu gabeko lehiaketa federatu bakoitzeko: 5 puntu, gehienez ere 10 puntu lortu ahalko direlarik.
- c) Emakumea izateagatik: 5 puntu.
- d) Bai puntuen baremoa betetzeko, bai eskabideak ebazteko, proba onuragarrieneko puntuak bakarrik hartuko zaizkio kontuan kirolari eskatzaileari, puntu honetako a) atalean zehaztutakoen artetik.

Zortzigarrena. Eskabideak aztertzea eta ebaztea.

1. Eskabideak aztertzea eta, kasuaren arabera, diru-laguntza ematea edo ukatzea, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan egingo da.
2. Espedientea aztertutakoan, laguntza emateko proposamena Udaleko Kirol-Zerbitzuak egingo du.

Espedientea eta Udaleko Kirol-Zerbitzuaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak behin betiko ebazpenaren proposamena egingo du, eta diru-laguntza emateko proposatutako eskatzaileari jakinaraziko dio, ebaluazioa nola egin den eta zein balorazio-irizpide erabili diren zehaztuta.

3. Epaimahaiko kideak honako pertsona hauek izango dira:
 - Epaimahaiburua: Lasarte-Oriako alkatea edo bere ordezkari izendatzen duen pertsona.
 - Epaimahaikide bozdunak:
 - o Lasarte-Oriako Udalaren Kiroletako Batzordeko lehendakaria
 - o Tecedor familiak izendatutako ordezkaria
 - o Euskadiko Halterofiliako Federazioaren ordezkaria
 - Idazkaria: Lasarte-Oriako Udaleko kiroletako teknikaria.

Gainera, beharrezkotzat jotzen duen guztietan, bekari dagokion esparruan adituak diren pertsonen lankidetzat eta aholkularitza eskatzeko ahalmena izango du epaimahaiak.

4. Prozedura ebazteko eta ebazpen hori jakinarazteko epea gehienez ere hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori ebazpen espresurik eman gabe igaro bada, diru-laguntza eskatzeko aurkeztutako eskabideei ezezkoa eman zaiela esan nahiko du.

Baldin eta ebazpena baiezkoa bada, bertan adieraziko da nola pagatuko den, zein programa edo jarduerari eragingo dion, zein agiri aurkeztu behar diren eta zein baldintzatan ematen den, eta ebazpena onuradunari notifikatuko zaio, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 59. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

5. Eskatzaileari ez zaio audientziarik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztuko egitateak eta agiriak baizik ez baitira aintzat hartuko.
6. Ebazpenak bide administrazioa agortuko du, eta, beraz, haren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua aurkeztu ahalko da, Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 26/1998 Lege uztailaren 13koak 9.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena notifikatzen denetik.

Zuzenean kontestatu ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko zaio ebazpena eman duen organoari hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak —urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketan— 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera,

Bederatzigarrena. Diru-laguntza ematea. Diru-laguntza behin deialdiaren ebazpena onetsitakoan emango da.

Hamargarrena. Laguntza-jasotzailearen betebeharrak. Laguntzen onuradunak izango dituen betebeharrak:

- a) Diru-laguntza ematea oinarritzen duen jarduera egitea edo jokabidea hartzea.
- b) Diru-laguntza ematen duen erakundean egiaztatzea jarduera egiten ari dela edo jokabidea hartu duela, bai halaber laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.
- c) Diru-laguntzaren onuraduna behartuta geratzen da egindako jardueri buruz Kiroletako Departamentuak eskatzen dizkion datu eta agiri guztiak aurkeztera. Era berean, Ogasuneko Departamentuak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatzen ahal dioten informazioa ere eman beharko du, eta, kontu-ikuskapenik egin behar bada, onartu egin beharko du.
- d) Diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturengandik diru-laguntzak edo laguntzak jaso dituela xede bererako.

Hamaikagarrena. Diru-laguntza aldatzea. Diru-laguntza emateko baldintzetakoren bat aldatzen bada, eta, betiere, beste erakunde publiko zein pribaturen batek emandako diru-laguntzak edo laguntzak ere jaso badira, diru-laguntza emateko hartu zen ebazpena

aldatu egingo da, eta, bestalde, diru-laguntza kobratuta badago, haren parte bat itzuli egin beharko da.

Hamabigarrena. Diru-laguntza galtzea. Gerta daiteke deialdi honetan emandako BEKA galtzea onuradunak, aldez aurretik dagokion espediente irekita, baldin eta Udalak izendatutako eta diru-laguntzaren xede den Campuseko partaide ez bada.

Hamahirugarrena. Kontrolatzea. Udaleko Kirol-Zerbitzuak onuradunek emandako datuak benetakoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatu eta beharretsi ahal izateko beharrezko diren ekintzak gauzatu ahalko ditu. Horretarako, orain bertako kide diren edo azken bi urteetan kide izen diren klubak behartuak daude kirolariek garatzen dituzten jarduerekin zerikusia duten eta Udaleko Kirol-Zerbitzuak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dizkieten datuak eta agiriak ematera.

Hamalagarrena. Publizitatea

- a) Deialdi hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- b) Era berean, ikusgai jarriko da Lasarte-Oriako Udalaren eta Euskadiko Halterofiliako Federazioaren webgunean.

Hamabosgarrena. Interpretazioa. Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Zerbitzu Munitipalak ebatziko du.